ALDEE
Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkartea
Asociación Vasca de Profesionales de Archivos Bibliotecas y Centros de Documentación

IKASTAROA: Irakurketa Erraza: irakurketa eta ulermena dinamizatzea

Irakasela:

Nerea Aizpurua Iraola

10 urte daramatza Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Errazaren proiektuan lanean. Bi hizkuntzetan eta hainbat irakurle motarekin irakurketa dinamizatzen du Irakurketa Errazeko (IE) taldeetan. Gai honi buruzko ikastaroak eta aholkularitza ematen die ere mota guztietako profesionalei. Arlo guztietako testu eta informazio irisgarria sortzen eta egokitzen du.

Zergatik ikastaro hau?

Irakurketa Errazaren (IE) kontzeptua eta erabiltzaileekin lanean erabiltzeko moduak ezagutzeko ikastaroa. IE materialekin irakurketa dinamizatzeko gaitasunak eskuratzea du helburu, bereziki irakurtzeko eta/edo ulertzeko zailtasunak dituzten kolektiboekin dinamizatzeko gaitasunak:

- Aldi baterako zailtasunak dituztenak: etorkinak, analfabetismo funtzionala, hizkuntza berria ikasten dutenak (euskara eta gaztelera), eskolatze gutxikoak, istripuak, irakurtzen berandu hasi direnak, hainbat arrazoirengatik irakurketa baztertu dutenak…
- Zailtasun iraunkorrak dituztenak: desgaitasun intelektuala, dislexia, hizkuntzaren nahasmenak, arreta nahasmenak, ikasketa nahasmenak, afasia, autismoa, osasun mentalaren arloko gaixotasunak…

Helburuak

Ikastaro honen helburuak dira:

- IE materialen erabileran trebetasuna lortzea.
- IE materialetatik abiatuta ekintzak diseinatzeko metodologia ematea.
- IE materialekin irakurleen artean irakurketa eta ulermena bultzatzeko dinamika eta teknika zehatzak ematea.
- IE materialak irakurleen ezaugarri zehatzen arabera erabiltzeko trebetasuna lortzea.

Edukiak

- Irakurketa erraza eta irakurtzeko ohitura sustatzea.
- Materialak Irakurketa Errazean. Motak.
- IE erabiltzea irakurtzeko zailtasunak dituzten kolektiboekin.
- Irakurketaren dinamizazioa: Irakurketa Errazeko taldeak.
- Talde motak eta antolamendua.
- Saioak eta dinamikak nola gauzatu.
- Irakurle motaren arabera egokitzea.
- Lanketa praktikoa: IE titulu baterako saioak prestatzea.
- IE talde bateko saio baten praktika egitea.

Egutegia / Calendario:

Apirilak 20 eta 27 2026

20 y 27 de abril 2026

Ordutegia / Horario:

09:30-13:30

Lekua / lugar:

Haur Liburutegi Nagusia

Fermin Calbeton, 25. 20003 Donostia-San Sebastián

Hizkuntza / Idioma:

Euskara

Modalitatea / Modalidad:

Presentziala

Iraupena / Duración:

8 h

Matrikula / Matrícula:

Bazkideak: 80€
Ez bazkideak: 120€
Bazkide langabeak: 40€

Harremanetarako / Contacto:

aldee@aldee.eus
tel.: 943462024
605715007

Elkarlanean / Colaboran:

donostia kultura

Babesten / Patrocinan:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ALDEE
Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkartea
Asociación Vasca de Profesionales de Archivos Bibliotecas y Centros de Documentación

Hartzaileak

Liburutegietan IE taldeak abian jarri eta dinamizatu nahi duen liburutegietako profesional mota guztiak.

Metodologia

Saio bakoitzean hauxe landuko da: azalpen teorikoak, materialak aurkeztea eta aztertzea, iritziak eta zalantzak partekatzea… Hau guztia, ikus-entzunezko baliabideez laguntzen dugu. Beraz, saioak esperientziak mahairatzeko eta partekatzeko espazioa izango dira. Parte-hartzaileen behar zehatzetara egokitzen diren ariketa praktikoak egingo dira.

Ikastaro praktikoa: Eman beharreko teoriaz gain, lehenetsi egiten da praktikoa izatea; alegia, xedea da ikasleek eskuratzea zenbait irizpide, estrategia eta tresna, gero eguneroko lanean balia ditzaten.

Programa

Ikastaroa bi egunetan egingo da: apirilaren 20an eta 27an. Egun bakoitzean, goizeko 9:30ean hasi eta 13:30ean bukatuko da, atsedentxo baterako tartearekin.

Eguna	Saioa	Gaiak
Apirilak 20	1. saioa	- Irakurketa erraza eta irakurtzeko ohitura sustatzea. - Materialak Irakurketa Errazean. Motak. - IE erabiltzea irakurtzeko zailtasunak dituzten kolektiboekin. - Irakurketaren dinamizazioa: Irakurketa Errazeko taldeak. - Talde motak eta antolamendua. - Saioak eta dinamikak nola gauzatu. - Irakurle motaren arabera egokitzea.
Apirilak 27	2. saioa	- Irakurketaren aurretik, bitartean eta ondoren erabiltzeko baliabideak. - Lanketa praktikoa: IE titulu baterako saioak prestatzea. - IE talde bateko saio baten praktika egitea.

Oharrak

Leku mugatuak izango dira eta izen-emate ordenaren eta matrikula ordainketaren arabera emango dira.

Baliogabetze politika

Izen-ematean baja emateko epea ikastaroa hasi baino bi aste lehenago amaituko da. Ikastaroa hasteko bi aste edo gutxiago falta diren kasuetan, baja ematen dutenei ez zaie matrikularen ordaina itzuliko.

Egutegia / Calendario:

Apirilak 20 eta 27 2026

20 y 27 de abril 2026

Ordutegia / Horario:

09:30-13:30

Lekua / lugar:

Haur Liburutegi Nagusia

Fermin Calbeton, 25. 20003 Donostia-San Sebastián

Hizkuntza / Idioma:

Euskara

Modalitatea / Modalidad:

Presentziala

Iraupena / Duración:

8 h

Matrikula / Matrícula:

Bazkideak: 80€
Ez bazkideak: 120€
Bazkide langabeak: 40€

Harremanetarako / Contacto:

aldee@aldee.eus
tel.: 943462024
605715007

Elkarlanean / Colaboran:

donostia kultura

Babesten / Patrocinan:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO